



714 ZB.KO DEKRETUA.

Oiartzungo haranean, bi mila eta bederatziko abuztuaren 20an

2009ko uztailaren 16an Udal honetako Alkate-Lehendakari jaunak emandako 641 zk.ko Dekretu bidez Arraguako ARR-1B eremuko Urbanizazio Proiektua idazteko zerbitzua IDOM, S.L. enpresari behin-behingo esleitzea erabaki zuen.

Sektore Publikoaren Kontratazioa arautzen duen 2007ko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 135.4 artikuluekin adostasunean, hamabost egun balioduneko epea eman zitzaion behin-betiko bermea ezar zezan eta Gizarte Segurantzza eta zerga betebeharretan eguneratua dagoen ziurtagiriak aurkez zitzan.

Horiek aurkeztuta, Legearen 135.4. artikuluen 3.parrafoaren arabera, aurreko epea igaro eta gehienez hamar egun baliodunetan behin-behineko esleipena behin-betiko deklaratu da.

Gaiaren inguruan Administrazio Orokorreko Teknikariak egindako txostenean jasotakoa aintzat hartuz, espediente bideratzean aplikagarri diren legezko tramite guztiak bete direla kontuan izanik, Toki Jaurbideak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan, ZERA ERABAKITZEN DUT:

Emandako epean IDOM,S.L. enpresak aurkeztu beharrekoak aurkeztu dituenaz, Arraguako ARR-1B eremuko Urbanizazio Proiektua idazteko zerbitzuaren kontratua IDOM,S.L. enpresari behin-betiko esleitzea proposatzen da 58.000 €ko prezioarekin (BEZ barne) eta 3 hilabeteko egikaritze epearekin.

Aitor Etxeberria Txurio Alkate-Lehendakari Jn.ak agintzen eta sinatzen du, eta neuk idazkari naizenez, ziurtatzen.

